

ISSN: 2530-6561
2024ko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Zer da Desazkundera?

Adrián Almazán

Zer da Desazkundera?

Adrián Almazán

THECO ikerketa-taldea, Madrilgo Carlos III. Unibertsitatea

manueladrian.almazan@uc3m.es

Aurkibidea

1. Sarrera: Desazkun... zer?	8
2. Zergatik behar dugu desazkundera?	10
2.1. Energiaren eta materialen arazoa	11
2.2. Biodibertsitatearen arazoa	11
2.3. Klimaren arazoa	12
2.4. Krisia soziala ere bada	12
3. Nolakoa izango litzateke desazkunderan oinarritutako gizarte bat?	14
3.1. Aukeren mapa bat sortzen	14
3.2. Desazkunderaren indar-ideiak	15
3.2.1. Materialen eta energiaren kontsumoa ekologikoki bideragarriak diren mailetara murriztea	15
3.2.2. Ekonomiaren birlokalizazioa eta dibertsifikazioa	16
3.2.3. Metabolismo soziala metabolismo ekosistemikoaren barruan integratzea	16
3.2.4. Produkzioa eta erreproduzioa unitate ekonomiko bakar batean integratzea	17
3.2.5. Lurralde arteko eta barruko aberastasunaren birbanaketa nabarmena, justizia globaleko irizpideei jarraikiz	17
3.2.6. Pertsonen autonomia handitzea eta bizibideaz birjabetzea	17
4. Desazkunderako estrategiak	19
4.1. Degradazio sozioekologikoaren aurkako borroka	19
4.2. Esparru kultural ekosozialak artikulatzea	20
4.3. Komunalizatzea	20
5. Ondorioa: Desazkunderari eta kolonialismoari buruzko hausnarketa bat	22
6. Bibliografia	24

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Iker Etxano
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurrezaga
Xabier Gainza
Amaia García
Itziar Mujika
Unai Villena
Iker Zirion

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Zer da Desazkundea?](#)

Egilea: Adrián Almazán

hegoak zabalduz - 38. zk. 2024ko abendua

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.
Itzulpen Zerbitzua: Labayru Fundazioa

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:
Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Zer da Desazkundera?

Laburpena: Artikulu honetan Desazkunderari buruzko hausnarketa orokor bat egin dugu, hiru ataletan. Lehenik eta behin, gaur egun gure metabolismoak eta gure antolaketa sozialak sakon eraldatzeko premia aztertzea egoki eta beharrezko bihurtzen duten egoera sozioekologikoak ikertzen dira. Bigarrenik, ikusiko dugu zer orientabide orokor jarraitu beharko den, aribidean dagoen suntsiketa ekonomikoa geldiarazteko eta, aldi berean, injustiziak, desparekotasunak, gerrak eta mendekotasunak eragindako haustura soziala konpontzeko gai den eraldaketa gidatze aldera. Proposamen horri deitzen diot Desazkundera. Hirugarrenik eta azkenik, gaur egungo egoeratik Desazkundera igarotzeko aukera emango diguten estrategia-motak zehaztu ditugu. Amaitzeko, Desazkunderaren eta Iparralde-Hegoalde justiziaren artean dagoen lotura sakonari buruzko hausnarketa batzuk egin ditugu. Zehazki, gure ustez, beharrezkoa da Iparraldeak desazkundera izatea, Hegoaldeak askatasunez aukeratu dezan bere gaur egungo eta etorkizuneko ibilbidea.

Hitz gakoak: Desazkundera, Kapitalismoa, Komunalismoa, Justizia, Autonomia.

Abstract: This article presents a general reflection on degrowth in three stages. First, it explores the type of sociological conditions that currently make it pertinent and necessary to explore profound transformations of our metabolisms and our social organization. Secondly, it explores the type of general orientation that should guide a transformation capable, at the same time, of halting the ongoing ecosocial destruction and healing the social fracture inflicted by injustice, inequality, war or dependence. It is this proposal that I call Degrowth. Thirdly and finally, it explores the type of strategies that could allow us to move from the current situation to degrowth. To conclude, some reflections on the deep link between Degrowth and North-South justice are presented. In particular, it is argued that it is necessary for the North to degrowth so that the South can freely choose its present and future trajectory.

Key words: Degrowth, Capitalism, Comunalism, Justice, Autonomy.

1. Sarrera: Desazkun... zer?

Pixkanaka bada ere, Desazkunde hitza eztabaida publikoan sartzen hasi da. Adibidez, 2023an, Europako Parlamentuan, gaiari buruz eztabaidatu zuten *Beyond Growth* (Hazkundeaz harago)¹ izeneko hiru eguneko hitzaldi batean. Zenbait pertsona ospetsuk ere terminoa jendaurrean erabili dute, Frantzisko aita santuak, esaterako. Espainiako estatuan, aurten, hitzarmen aitzindari bat sinatu dute Gironako Udalak eta zenbait erakundek, Desazkundearekin lotutako politika publiko batzuk aztertzeko.

Jende askorentzat, Desazkundera ideia berritzailea da. Ez da hala, ordea. Gutxienez, duela mende erdi sortu zen. Hala kontzeptua bera (zenbaitek André Gorz filosofo frantsesari egozten diotena) nola haren funtsezko proposamen asko 1970eko hamarkadan gizarte kapitalista eta industrialari egindako kritikekin oso lotuta daude.

Kritika horietan, funtsezkoa izan zen konturatzea gizarte kapitalistek (bai merkatukoek, mendebaldekoak kasu, bai estatukoek, Txina eta Sobietar Errepublika Sozialisten Batasun ohia², esaterako) ekonomikoki modu konpultsiboan hazi behar dutela behar bezala funtzionatzeko. Gainera, hazkunde horrekin batera, energia-kontsumoa hazten da ezinbestean, eta ekosistemak suntsitzen dira, deforestazioak, kutsadurak eta hirien eta nekazaritzaren hedapenak eraginda.

Diagnostiko horretan oinarrituta, pertsona eta kolektibo asko saiatu ziren garaiko gizartea kontzeptualki eta materialki aldatzen. Hona hemen horren adibide batzuk: Georgescu-Roegenek proposatutako bioekonomia berria, zeinak bizitza aintzat hartuko lukeen eta hazkunde ekonomikoari mugak ezarriko lizkiokeen; Ivan Illichek gizarte industrialari egindako kritika eta *gizarte bizikideen* aldeko apustua; Schumacherrek gaur egungo teknologiak alde batera utzi eta eskala txikiko *teknologia egokietara* jotzeko egindako proposamena; eta mugimendu ekologista garaikidearen sorrera, besteak beste.

Neoliberalismoa pixkanaka mundu osoan inposatzeak eraldaketarako proposamen horiek bat-batean gelditzea ekarri zuen. Nolanahi ere, Nazioarteko Diru Funtzaren (NDF) doikuntza-planen eta hersturaren diziplinaren inpaktu sozial eta ekologiko kaltegarrien ondorioz, 1990eko eta 2000ko hamarkadetan, kapitalismo industrial bidegabe eta suntsitzailearen ordeko aukerak irudikatzen jarraitzeko premia eta abagunea aldarrikatzen zuten askotariko ekimenenak sortu ziren mundu osoan (Kothari et al., 2019). Chiapaseko mugimendu zapatista erreferentetzat hartuta, azken hogeita hamar urteetan Bizimodu Ona (Latinoamerika), Swaraj Handia (India), Ubuntu (Afrika) eta Desazkundera (Europa) kontzeptuak landu dira, besteak beste. Izan ere, garai horri eta Serge Latouche eta beste egile batzuen bultzadari zor diegu Desazkunderaren ideien behin betiko sorrera, orain ulertzen dugun moduan.

Espainiako estatuan, Carlos Taibo da Desazkundera dibulgatzen denbora gehien aritu den egilea. Kolektiboek dagokienez, aipagarria da Ekologistak Martxan Konfederazioaren (Hego Euskal Herriko Ekologistak Martxan horren parte da)³ eta haren kide batzuen (Luis González Reyes, Yayo Herrero,

1 <https://www.beyond-growth-2023.eu/>

2 Estatu-kapitalismoaz hitz egitean, testu honetan anarkismoa edo kontseilaritza bezalako korranteetako egile sozialisten hausnarketak jarraitzen dira (Murray Bookchin, Emma Goldman, Anton Pannekoek, Ante Ciliga, etab.). Autore horiek salatzen dute erregimen sobietarrak ez zirela inoiz sozialistak izan, nahiz eta kapital pribatuen zati bat desjabetu eta Estatuan kontzentratu. Martxan jarri zutena, aitzitik, banatutako botere ekonomiko berri baten eraketa izan zen, burokraziarena, zeinak, estatu-enpresa handien kudeaketan, gainbalioa ateratzen jarraitu zuen biztanleria osotik. Gainera, erregimen horietan sakondu ziren bai gizarte-alienazioa, taylorismoa hedatuz eta industrializazioa orokortuz, bai hazkunderaren obsesioaren gaitz guztiak, bereziki suntsipen ekologikoa.

3 <https://www.ecologistasenaccion.org/>

Jorge Riechmann...) lana. Kolektibo hori izan da, agian, desazkundearen ideia zehazten eta lurreratzen eta publiko zabal bati helarazten gehien lagundu duena. Euskal Herrian, beste ekimen batzuk ere gai horretan aitzindariak izan dira, esaterako, Desazkundera kolektiboa⁴.

Jakina, halako historia aberats eta askotariko batek inola ere aldebakarra ez den kontzeptu anizkoi bat sorrarazi du. Nahiz eta desazkundearen unibertso kontzeptual osoaren abiapuntua hazkunde ekonomikoa gizarte-bizitza ororen gidari eta antolatzaile izateko logika zalantzan jartzeko premia den, ez dago logika hori iraultzeko modu bakarra. Horrexegatik, lehengo urtean, Ekologistak Martxan taldeko militante izanik azken urteotan egin dugun ikerketa, hausnarketa estrategikoa eta lortutako esperientzia militantea biltzeko lanari ekin genion Luis González Reyesek eta biok. Lan horren emaitza *Decrecimiento: del qué al cómo* (González Reyes eta Almazán, 2023) liburuaren argitalpena izan da.

Horretan, Desazkundera guretzat zer den azaldu genuen. Eta, horretarako, diagnostikoari (zergatik behar dugu desazkundera?), ibilbide-orriari (zer ekarriko digu desazkunderak?) eta estrategiari (zer egin beharko genuke desazkundera lortzeko?) buruzko gogoetak jorratu ditugu. Eta, urte horretan, Manu Robles Fundazioarekin lankidetzan Hego Euskal Herria desazkunderantz eraldatzeko egin genuen proposamena ekarpen erabakigarria izan zen gure hausnarketarako. Lan hori *Hego Euskal Herriko ekonomiaren trantsizio ekosozialerako bide-orriaren proposamen bat* (Almazán eta González Reyes, 2023) txostenean laburbildu eta argitaratu zen.

Hurrengo lerroetan, liburuaren oinarritzko zenbait ideia aurkeztuko ditut hiru gogoeta-atalei dagokienez, eta irakurleari ideia nagusi horien hurbilketa labur bat emango diot.


4 <https://www.facebook.com/desazkundera/>

2. Zergatik behar dugu desazkundera?

Gure munduan elkarri lotutako askotariko krisiak daude. *Homo sapiens sapiens*-aren historia laburrean beti egon da alde gaindiezin bat gure ekintzen eta planetako bizitzaren dinamika interkonektatuen artean. Guztia aldatu zen XX. mendean. Mendebaldean, lehenik, eta, mundu osoan, ondoren, gizarte kapitalista industrialek izandako *Azeleratze Handiak* Holozenotik atera eta aro berri batean sartu gaitu: Kapitalozenoan (Bonnieuil eta Fressoz, 2016).

Aro berri horretan, muga ekologikoekin talka egiten ari gara. 2023ko irailean, *Stockholm Resilience Centre* erakundearen mugen esparrua garatu zuen taldeak egindako ikerketa batean (Richardson et al., 2023), agerian geratu zen planetan gizakien eta haiekin batera eboluzionatu duten izaki bizidun gehienek bizitzarekin bateragarria den oreka-egoera bat mantentzeko beharrezkoak diren bederatzi planeta-mugetatik sei hautsi direla dagoeneko.

Horietako lauk arrisku handiaren atalasea gainditzen dute jada, 1. irudian ikus daitekeen moduan. Eta "eremu seguruan" dauden hiruretatik bi haustear daude. Mugetatik irteteko dinamika horren ondorioz, talde horrek gizateriarentzako eremu operatibo segurutzat jotzen duenetik asko urruntzen ari gara. Beraz, gizarteek aurrez aurre izango dituzten erronka ekologikoak ugaritzen ari dira.



Iturria: Richardson et al., 2023.

2.1. Energiaren eta materialen arazoa

Egoera global larrian dagoen elementuetako bat energiaren eta materialen eskuragarritasuna da. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) arabera, munduan erauzitako lehengaien guztizko kantitatea, metalak eta mineralak barne, % 70 handitu zen 2002 eta 2017 artean. Gaur egungo erritmoan jarraituz gero, 2060rako bolumen hori bikoiztu baino gehiago egingo da (90.000 milioi tonatik 190.000 milioi tonara).

Munduko Bankuak eta Energiaren Nazioarteko Agentziak metalen etorkizuneko eskariari buruz planteatu dituzten agertokiak arabera, kontsumoak eta erauzketak etengabe hazten jarraituko dute. Metalaren meatzaritza esponentzialki hazten bada, % 3ko hazkunde-tasa batekin (gaur egun "ertaintzat" hartzen da), erauzketa 25 urtean behin bikoiztu behar da.

Etengabeko hazkundeko eta baliabide naturalen erauzketa etengabe handitzeko dinamika hori jasanezina da. Intergovernmental Science-Policy Platform on Biodiversity and Ecosystem Services (IPBES) plataformaren arabera (Intergovernmental Panel on Climate Change - IPCCren baliokidea, biodibertsitatearen arlorako), meatzaritzak eta lehengaien prozesaketak biodibertsitatea suntsitzen dute, estres hidrikoa areagotzen dute eta berotegi-efektuko gasen emisio globalen % 10 inguru sortzen dute.

Bestalde, zain aberatsenak agortzen ari direnez, mineral askoren kontzentrazioa murrizten ari da, eta, ondorioz, balio komertzialik gabeko material gehiago erauzten dira, hondakin gehiago sortzen dira eta energia gehiago erabiltzen da; hau da, inpaktu ekologikoa handiagoa da eta material kutsatzailea kudeatu behar da. Fosilen estraktibismoaren egoera ere antzekoa da. Errazen lortzen diren baliabideak agortzen direnean, toki helezinagoetan daudenetara jotzen da eta, beraz, inpaktu handiagoa duten teknika agresiboak behar dira.

Baliabideak erauztearen inpaktu ekologikoez gain, ulertu behar da gaur egungo erauzketa-ereduak ezin dituela gaurko kontsumo-mailak mantendu, eta are gutxiago zabaldu. Meategi bat ustiatzen denean, erauzketa-tasek goranzko kurba bat marrazten dute, hasieran. Baina, ezinbestean, uneren batean erauzte-ahalmena gainbehera hasiko da. Inflexio-puntua "substantziaren gailurra" da. Bigarren fasean, substantziaren gero eta kantitate txikiagoak erauzten dira, kalitate txarragoa du, erauzteko prozesua zailagoa da eta metodo kutsagarriagoak erabiltzen hasten dira.

Esan daiteke 2018an, ziur aski, munduko petrolioaren gailurra igaro zela; 2016an, dieselarena (funtsezkoa garraiorako eta nekazaritzarako); 2016an, uranioarena; 2019an (oraindik behin betikoa ez izan arren), gasarena; eta 2013tik, ikatzaren erauzketa lautada aldakor batean dagoela. Gauza bera ari da gertatzen metabolismo kapitalistarentzat funtsezkoak diren hainbat materialekin, esaterako, kobreakin (elektrizitatea), fosforoarekin (elikadura), telurioarekin eta zilarrarekin (elektronika).

2.2. Biodibertsitatearen arazoa

Lurreko bizitzaren historian, Espezieen Seigarren Suntsipen handia gertatzen ari da. Horren erakusgarri da intsektuen % 40 inguru desagertzeko arriskuan dagoela (Sánchez-Bayo eta Wyckhuys, 2019). Bestalde, ugaztun basatien biomasa Pleistozenoan zegoenaren % 25 baino txikiagoa da (Díaz et al., 2019). Gainera, espezie batzuk desagertzeaz gain, beste batzuen populazioak murrizten ari dira. Horrekin batera, gizakiaren jarduerak zenbait espezie ugartzea bultzatu du nahi gabe (arratoiak, labezomorroak, usoak, kaioak), eta beste batzuk nahita (40 animalia-espezie eta 100 landare-espezie inguru esponentzialki ugartu dira etxekotzeari esker). Bi dinamikak ekosistemaren desoreka sakon baten adierazgarri dira.

Bizia suntsitzen duten prozesu horiekin hertsiki lotuta, lurreko 14 habitateetatik 10etan landarediaren produktibitatea jaitsi da, eta lurreko ekoeskualdeen ia erdia kontserbazio-egoera txarrekoetat jotzen da. Eta are garrantzitsuagoa dena: litekeena da dagoeneko biodibertsitatea galtzearen segurtasun-muga gainditu izana; hau da, ekosistemaren degradazioak kate-bilakaera geldiezinaz izatea (Newbold et al., 2016).

Biodibertsitatearen galeraren bektore nagusiak hauek dira: gehiegizko ustiapena (baso-mozketa, ehiza, arrantza), nekazaritza eta abeltzaintza industrialak, hirien garapena, espezie inbaditzaileen eta gaixotasunen hedapena, kutsadura, ingurunearen aldaketa (sua, presak, meategiak) eta klima-aldaketa. Horiek guztiek erro bera dute: gure gizarte kapitalista eta industrialen funtzionamendu normala.

2.3. Klimaren arazoa

Gainazaleko airearen tenperaturak 1,1 °C egin du gora industrializazioaren aurreko tenperaturarekin alderatuta, IPCCren arabera. Klima-aldaketaren eraginez, ekosistemak nabarmen desorekatzen ari dira, izaki bizidunen banaketa, mugikortasuna, ugaritasuna eta elkarrekintzak errotik eraldatzen baititu. Kaos klimatikoaren inpaktuak hain handiak dira, dagoeneko ezin ezinezkoa baita mundu-mailako kapitalismo industrialaren funtzionamenduari eustea etengabe gorabeherak gertatu gabe: lehorteak, euri-jasak, zikloiak, akuiferoak gazitzea, suteak, etab.

Gure sistema sozioekonomikoak gidatutako giza jarduera da larrialdi klimatikoa eragin duten berotegi-efektuko gasen emisioen erantzulea, baina eragile are kontrolaezinago batek bultzatzen dezake etorkizunean izango duen bilakaera: planetak berak. Hori gertatuko da, adibidez, atzeraelikatze positiboko begizta klimatikoak aktibatzen badira.

Sistema klimatikoaren ezaugarri nagusietako bat konplexutasuna da. Hartara, modu ez-linealean jokatu du. Neurri batean, atzeraelikatze positiboko prozesuak daude linealtasun falta horren atzetan. Prozesuotan, ondorioek kausak handitzen dituzte atalase bat igaro ostean; gainera, prozesu atzeraezina da, funtsean, gizakion denbora-ekalena.

Prozesu horietako bat da, adibidez, izoztutako eskualdeen urketa, zeina gero eta bizkorragoa baita. Era horretako beste begizta bat permafrostaren urketa da, zeinak gaur egun atmosferan dagoen karbono-kantitate osoaren antzekoa baitu, CO₂ eta CH₄ gisa. Berotegi-efektuko gasak dira biak ala biak.

Atzeraelikatze positiboko dinamika horien larritasuna eta inpaktua ikusita, bereziki garrantzitsua da begizta horiek aktibatzen dituen atalasea identifikatzea. Sistema klimatikoa oso konplexua izanik, hori zehaztea oso zaila den arren, gero eta ikerketa gehiagok iradokitzen dute atalasea 1,5 °C edo gutxiagoko tenperatura-igoera batean dagoela (Hansen et al., 2016). Horregatik, halakorik gerta ez dadin, Nazio Batuek emisioak berehala % 7,6 murriztu behar ditugula planteatu dute. Halako murrizketa batek ez du aurrekari historikorik, ez intentsitateari dagokionez, ez lurralde-hedadurari dagokionez (planeta osoa), ez eta denborari dagokionez ere (gaurtik mende amaierara arte izango litzateke, gutxi gorabehera). Hori gertatzeko beharrezkoa izango da, baina ez nahikoa, ezagutzen ditugun erregai fosilen erreserba gehienak lurpean uztea. Nolanahi ere, litekeena da jadanik beranduegi izatea eta atzeraelikatze positiboko begizta batzuk aktibatzen izana; horrek gainerakoak ere aktibatzea bultzatuko luke.

2.4. Krisia soziala ere bada

Gehiegikeria ekologiko horiek marrazten duten agertokia, ikusi dugun moduan bederatzitik hiru soilik izanik, beldurgarria da dagoeneko. Eta are beldurgarriagoa, aintzat hartzen badugu ezin direla arazo ekologikoak eta sozialak bereizi. Horregatik, komeni da arazo sozioekologikoei edo ekosozialei buruz

hitz egitea. Batetik, prozesu ekonomiko orok eskakizun material eta energetiko sorta bat dituelako oinarrian. Gure gizarte kapitalista eta industrialek beren metabolismoaren zenbait hausturaren bidez bultzatu dute beren dinamismoa (Sempere, 2018): erregai fosilak erabiltzea, meatzaritzako estraktibismoa eta nekazaritza industrialak. Eraldaketa sozial horiek daude gaur egungo suntsipen ekologikoaren oinarrian.

Baina, bestalde, eta hau garrantzitsuagoa da, ez dagoelako ekodependentzia eta interdependentzia ez den gizarterik⁵. Eta ez soilik arlo ekonomikoan, orokorrean baizik. Ezin dira natura eta gizarteak izaki isolatu gisa kontzeptualizatu: biek elkarri eragiten diote. Gaur egungo mundu-mailako krisi ekosoziala gizarte-osaera oso espezifiko baten emaitza da: kapitalismo industrialarena. Aldi berean, krisi hori funtsezko faktore bihurtzen ari da orain arte hertsiki sozializat jotzen ziren fenomenoak deskribatzeko: pandemiak, hornidura-faltak, gerrak... Horiek guztiak, hein batean behintzat, Kapitalozenoaren kausa edo emaitza dira, gaur egun.

Era berean, ekodependentzia horretatik ondorioztatzen da ezein ordena sozialek, ezta kapitalismo industrial globalizatuak ere, ezin duela bere burua mantendu, eskura dituenak baino energia eta material gehiago eta kalitate hobegokoak behar baditu. Ezta planetako ekosistemak bere mantentze-premiekin bateraezina den oreka-puntu berri batera eraman arte eraldatzen baditu ere. Egiaz, ekosistemaren degradazioak egoera zeharo itzulezinetara eraman gaitzake. Ikusi dugun moduan, atzeraelikatze positiboko begizta klimatikoak aktibatzeak, esaterako, gure gizarte-antolamenduaren erabateko porrota ekar lezake eta, agian, gizakia planetan bizitzea ia ezinezko bihurtuko luke.

Are gehiago, narriadura ekologikoarekin batera, azken hamarkadan, gobernu asko, gehienak eskuin muturrekoak, eraldaketa instituzional "iraultzaileak" babesten ari dira, mundu osoan duten bizkortze eta sakontasunagatik. Duela berrogei urte ingurura arte, proiektu autoritarioek armen bidez hartzen zuten boterea, eta kontrolean eta errepresioan oinarritutako erregimenak ezartzen zituzten. Aldiz, gaur egun, demokratikoki eskuratzen dute boterea. Herritarren zati handi batek onartzen dituzte haien politikak, zeinen bidez desparekotasuna areagotu, eskubide sozialekin atzera egin, gutxiengo sozialei eraso eta lurraldea erabat suntsitzen den.

Neoliberalismo autoritario berri hori nekropolitika mota bat dela interpretatu behar da. Animaliak, landareak, lurra, arroak, gorputzak eta, oro har, lurraldeak kontsumitzen ditu –berezi, hegoaldeetan–, bere dinamika estraktibistan. Zoritxarrez, gobernu horietan muturrekoagoa eta gupidagabeagoa den arren, deskribatu dugun dinamika suntsitzailea ez da *alt right* direlakoen feudoetako bereizgarria soilik. Alderdi "progresista" eta/edo "kontserbadoreek" gobernatutako herrialdeetan ere, urruneko lurraldeen suntsipen sistematikoa bizimodu kontsumisten eta merkantilizatuen eskutik dator, zeinak normalizat aurkezten diren arren, egiaz inperialak baitira (Brand eta Wissen, 2021). Antolamendu neokolonialista eta estraktibista batek zeharkatutako sistema-mundu batean bizi gara, eta batzuen bizitzak beste batzuen gorputzen, lurraldeen eta, azken batean, sakrifizioaren kontura mantentzen dira. Beraz, egoera nekropolitikoa, egiaz, ezin da bereizi gizarte kapitalista eta industrialen funtzionamendu normaletik.

Ondorioz, planetarekin dugun harreman gatazkatsuen eta gure sistema-mundu kolonial eta estraktibistaren oinarrian egitura ekonomiko, kultural eta instituzionalen multzo jakin bat dago, eta hori hautsi behar dugu. Edo, bestela esanda, goitik behera aldatu behar ditugu gure bizimoduak (Almazán eta Riechmann, 2023). Izan ere, sistema horren kolapsoan gaude, eta presazkoa da dagozkion neurriak hartzea, hura berehala geldiarazi eta sortutako kalteak konpontzeko. Eta neurriok ekosozialak izan beharko dute, nahitaez.

5 Gizakiok beste pertsona batzuekiko interakzioa eta funtzio ekosistemikoak behar ditugu gure premiak asetzeko. Bi alderdi horiei buruzkoak dira interdependentzia eta ekodependentzia.

3. Nolako izango litzateke desazkunderan oinarritutako gizarte bat?

3.1. Aukeren mapa bat sortzen

Sistema kapitalista eta industrial horren kolapsoaren lehen faseetan gaude, jada. *Decrecimiento. Del qué al cómo* (González Reyes eta Almazán, 2023) liburuaren lehen atalaren ondorioa, zalantzarik gabe, kezkarria da. Alabaina, hori ikusita, ez dugu geldirik geratu behar, ezta nolabaiteko determinismo energetiko edo politikoan itsu-itsu sinetsi ere. *Terra incognita* bat dugu aurrez aurre, forma izugarriak har ditzakeena, baina egoera oso desiragarriak ere ekar ditzake. Are gehiago, aukera bat izan daiteke gizarte bidezkoak, berdinzaleak, autonomoak eta planetarekin bakean daudenak eraikitzeke. Baina, horretarako, inoiz baino presazkoagoa da kolapsoari aurre egiteko maila teorikoan eta praktikoan jardutea.

Dena dela, hasteko, garrantzitsua da ulertzea gaur egungo egoeran ez dela posible edozein motatako antolaketa sozial, ekonomiko eta politiko. Ekologia suntsitzeko egoera honetan, hazkunde azkar eta iraunkorreko etorkizuna ez da materialki posiblea. Horregatik, gauzek normal jarraitzeke edo, are, "hazkunde berde" iraunkor bat lortzeko hipotesia, kasurik hoberenean, ilusio hutsa da. Okerrenean, mundu-mailako polarizazio soziala handitzen jarraitzeke koartada izango da, eta gutxi batzuen bizimodu inperialak gehiengoaren eta planetaren beraren heriotzarekin ordainduko dira. Baita desparekotasunaren, autoritarismoaren eta militarismoaren hazkundearekin ere (Hernández Zubizarreta eta Ramiro, 2024).

Beraz, gure *terra incognita* honen maparen aukerek lau puntu kardinaletan dituzte mugak. Iparraldean, klima-aldaketak baldintzatutako mundu batean bizitzen ikastera behartuta gaude. Klima sisteman eragindako ezegonkortzea atzeraezina da, eta nahiz eta emisioak bat-batean gelditu, badakigu Holozenoan izan genuenaren oso bestelako klima bat edukiko dugula. Arlo horretan, agertokirik okerrera saihestea da egin dezakegun gauza bakarra. Hau da, atzeraelikatze positiboko begizta klimatikoak ez aktibatzea eta klimaren historiaren fase berri batera ahalik eta hobekien egokitzen saiatzea, jakinik egoera hori, zalantzarik gabe, ez dela hain onbera izango gure espeziearentzat eta beste askorentzat.

Hegoaldean, nabarmen kaltetutako bizitzaren bilbe batekin egingo dugu talka. Seigarren Suntsipen Handi horretan dagoeneko izan dugun espezieen galera neurrigabea ere atzeraezina da. Naturaren pobretze horrek giza prozesuetan eta elikagaien ekoizpenean zuzeneko eragina du jada, eta etorkizunean ere izango du. Nolanahi ere, bizitzak, indarra den aldetik, birsortzeke gaitasun oso handia du bereizgarri, eta gaitasun autonomoa da, gainera. Hori dela eta, birnaturalizatzeko xedea duten ondo bideratutako politikek, bizitzaren bilbeari tokia utziko baliote eta harekin bateragarriak diren bizimoduak eta ekoizteke moduak (esaterako, agroekologikoak) sustatuko balituzte aukera emango lukete, ia kosturik gabe, biodibertsitatea nabarmen leheneratzeko.

Ekialdean, energiaren eta materialen eskuragarritasun mugatu eta gero eta txikiagoaren mamua daukagu. Ikusi dugun moduan, zaila da zehaztea material bakoitzaren gutzizko erreserbak zenbatekoak diren, eta dinamika geopolitiko eta ekonomikoen mende daude, baina, oro har, etorkizunean gero eta gutxiago egongo direla onartu behar dugu. Horregatik, nahitaez heldu behar diogu arazo politiko izugarri honi: zein baliabide diren lehentasunezkoak eta nola banatuko diren zehaztea. Gainera, gaur egun, arazo hori hertsiki lotuta dago gerren eta gatazken gorakadarekin, zeinak, sarritan, lotura askaezina baitute kritiko bihurtu diren elementuak (litioa, erregai fosilak, fosfatoak, etab.) mantentzearekin eta horien eskuragarritasuna bermatzearekin.

Eta, azkenik, gure aukeren maparen mendebaldeko mugari heltzea agian zailagoa da, baina oso garrantzitsua, halaber. Lehen, termodinamikak eta ekologiak ezarritako muga fisikoak aipatu ditugu; aldiz, kasu honetan, muga edo baldintzatzaile sozial bati heldu behar diogu. Egia da gizarte guztiek dutela plastikotasuna bereizgarri, eta ezinbestean aldatzen direla. Arlo sozialean nolabaiteko jarraitutasuna defendatu nahi dugunean ere, esaterako, tradizioaren moduko ideien bitartez, egiaz,

etengabe berrasmatzera behartuta gaude, aldaketarik gertatu ez dela irudikatzeko. Nolanahi ere, egia da gizarte-aldaketak ez direla errazak. Gizarte jakin baten iruditeriak (Castoriadis, 1989) inertziabektore oso garrantzitsua dira.

Horiek horrela, gaur egungo edozein aldaketak aintzat hartu behar du gure abiapuntua benetan etsigarria dela. Berrogei urte baino gehiagoko hegemonia neoliberalaren ondoren, Desazkunde gisa deskribatuko dugun eraldaketa sozialaren erabat bestelakoa den ingurune instituzional, kultural eta ekonomiko batean bizi gara. Horregatik, gure proposamenetan, aintzat hartu behar dugu proposamena bultzatu nahi izanez gero botere hegemonikoekiko gatazkak izango ditugula ezinbestean, eta beharrezkoa izango dela lehen aipatutako eraldaketa metaboliko edo ekonomiko horiekin batera eraldaketa kultural eta instituzionalak egitea.

Hala ere, lau puntu kardinalok marrazten duten etorkizun hurbileko *terra incognita* horren mapa izugarri handia da. Gizakion betebeharra da ziurgabetasun hori gure xedeekin lerrotatutako ekintza zehatzez, gizarte-gatazkez eta kultura- eta erakunde-sorkuntzez betetzea. Horrexegatik, ulertu behar dugu sor ditzakegun antolaketa politiko, ekonomiko eta kultural mota amaigabeek askotariko orografiak eta kostaldeak marraz ditzaketela gure aukeren mapan.

Ezin dugu gure konfiantza inolako determinismo politiko, ekonomiko edo energetikotan jarri. Desazkundera ez da inola ere saihetsezina, eta hura defendatuz ez gara nahitaez "historiaren alde" egiten ari. Bestelako potentziala du Desazkunderak: gure gaur egungo egoeraren analisi errealista bat eta arlo sozialean desiragarria eta degradazio ekologikoa geldiarazteko gai den proposamen bat uztartzea. Hala ere, itsaso neoliberal baten eta biosfera kaltetu baten haize bortitzei egin beharko die aurre.

Laburbilduz, Desazkundera ezin da inola ere murrizketaren sinonimo soiltzat hartu. Zalantzazko garai hauetan beste askoren aurkako gatazkan egongo den proposamen politikoa dela ulertu behar dugu. Gainera, proposamen hori gauzatzeko, beharrezkoa izango da bultzada kolektibo handi bat, eta hein handi batean aurka duen testuinguru batean ezarri beharko da.

3.2. Desazkunderaren indar-ideiak

Aukeraren muge barruan dagoen gizarte desiragarri baten morfologia zehatza marraztea ez da lan erraza. Ia guztia birpentsatu behar da, bizimoduaren ideia oinarritzko elementu teorikotzat hartzen duen ikuspegi batetik. Desazkunderaren berrantolaketa ekonomiko posible hori nolabaiteko zehaztasunez proiektatzea izan zuen xede *Decrecimiento. Del qué al cómo* (González Reyes eta Almazán, 2023) liburuaren zati nagusiak, bai eta Euskal Herrirako (Almazán eta González Reyes, 2023) eta Kataluniarako (González Reyes et al., 2024) egindako zenbait txosten sektoriale ere.

Artikulu honetan ez diet berriz heldu azterketa xehatu horiei; aldiz, gogoeta-lan horien oinarri izan diren indar-ideien ikuspegi orokorra aurkeztea erabaki dut. Ikuspegi horretatik, zehaztasun eta hedapen handiagoz irudika daiteke Desazkunderak proposatzen duen eraldaketaren garrantzia. Horrela, Desazkunderaren sei ideia-indar bereiz daitezke:

3.2.1. Materialen eta energiaren kontsumoa ekologikoki bideragarriak diren mailetara murriztea

Hainbat hamarkadaz zabaldu den muga ekologikoekiko talkaren ondorioz txarrenak saihestu nahi baditugu, ezinbestekoa da ekoizpenaren eremua nabarmen murriztea. Baina, lehen adierazi dugun moduan, kontsumoa murrizteko hamaika modu daude, eta asko autoritarioak eta desperekoak dira.

Horregatik, Desazkundek lortu nahi ditugun egoera soziopolitikoekin bateragarriak diren murrizketa metabolikoak proposatu behar ditu.

Gainera, Desazkundera ez da soilik murriztea edo gutxitzea, dagoeneko adierazi den moduan. Desazkunderan oinarritutako ekonomia batean, sektore jakin batzuetako jarduera handitu behar da, esaterako, hondakinen kudeaketan eta elikaduran. Alabaina, oro har, energiaren eta materialen eskuragarritasuna murrizteak ekoizpeneko lanorduen murrizketa garbia ekarriko luke, gutxienez epe laburrera. Epe ertainera, agian, aldaketa tekniko sakoneko prozesu batean, bestelako joera bat egon daiteke.

Desazkunderako egoera bat abiarazteko, beharrezkoa litzateke lanetan lau aldaketa egitea: i) zaharbertzeak sustatzea, jakinik, ondo eginez gero, lanbideok pixkanaka desagertu egingo direla. ii) Ingurunea zaintzen duten eta horretan integratzen diren eta, hala, mota horretako lan gehiago sortzen dituzten lanbideak sustatzea. Horrek atzeraelikatze positiboko begizta bat sortzen du. Nekazaritza agroekologikoa da horren adibide. Jarduteko eremu erabakigarria da hori. iii) Bizitzarako kaltegarriak diren eta biodibertsitatea agortzen den heinean gero eta gehiago eskatzen diren zerbitzuak sortzen dituzten jarduerak birmoldatzea. Horren adibide da ongarri kimikoen ekoizpena. Oso arriskutsuak dira, ekodependenteak ez garelako ilusioa sortzen baitute. iv) Egoera ekologiko onaren mende dauden baina haren ustiapenean oinarritzen diren jarduerak birmoldatzea. Horren adibide da arrantza intentsiboa, baina baita hori mantentzen duten banku-zerbitzuak ere. Lanbide horiek autorregulatu egingo dira, ingurune osasungarririk ez dagoenean desagertu egiten direlako, baina funtsezkoa da hori lehenbailehen gertatzea, haien suntsikortasuna mugatzeko.

Beraz, ekonomiaren eremu materiala murrizteak ez du esan nahi ekonomia osoa murriztu behar denik. Are gehiago, ekosistemak eta pertsonak zaintzen dituen ekonomiak bolumen eta konplexutasun handiagoa izan beharko luke. Ikuspegi orokorra ekofeministatzat har genezake (Mies eta Bennholdt-Thomsen, 1999), eta haren xedea pertsonak eta bizitzaren bilbea babestea da, ez ekonomia.

3.2.2 Ekonomiaren birlokalizazioa eta dibertsifikazioa

Gaur egungo eredu mundializatuak Desazkundek geldiarazi nahi dituen inpaktu ekologikoak eta sozialak pilatzen ditu. Munduko ekonomia eta haren barneko bizimodu inperialak egituratzen dituen garapen desparekoaren eta estraktibismoaren logika apurtzeko, ezinbestekoa da ekonomiak birlokalizatzea, lurralde bateko bizitzaren euskarria hurbileko balia bideetan oinarrituta egituratzeko. Gainera, aintzat hartu behar da ez dagoela petrolioaren ordezkorik pertsonak, salgaiak eta informazioa distantzia handitan eta denbora laburretan garraiatzeko gaur egungo eredu masiboa mantentzeko. Beraz, litekeena da beste eredu batera igaro behar izatea, zeinak hipermugikortasun horri gehienez ere gizarte-sektore edo lurralde jakin batzuetarako soilik mantendu ahalko baitu, betiere dinamika despareko batean.

Baldin eta lurraldeek premia sozial gehienak asetzeko gai izan nahi badute, murrizketa metabolikoaren ondoriozko birlokalizazio horrek kapitalismo industrial globalizatuaren esparruan espezializatu diren jarduera ekonomikoen dibertsifikazioa ekarri beharko luke. Munduko lurralde guztietako biztanle guztien premiak behar bezala aseko direla bermatu nahi bada, behinik behin.

3.2.3. Metabolismo soziala metabolismo ekosistemikoaren barruan integratzea

Ekosistemak kapitalismo industrial bano askoz indartsuagoak eta erresilienteagoak dira. Ikusita ekosistemek ez dutela beren indarra hazkunderako baliatzen, baizik eta eguzki-energia erabiliz zikloak itzeko, dibertsitatea maximizatuz eta lankidetzata tasa handiekin (Castro Carranza, 2020), logikoa litzateke giza ekonomiak gauza bera egiten saiatzea. Horrek esan nahi du gizarteek lehen sektorean

jarri beharko luketela ekoizpen-ahalegin handiena, paradigma agroekologikoaren barruan, bigarren sektorea eta hirugarrena ez baitira gai zikloen ezinbesteko itxiera hori egiteko.

Idea horren ondorio gisa, aipagarria da ekosistema lehengorazten lagundu eta katalizatu dezakegula, baina naturak ezin hobeto egin dezakeela hori gizakien parte-hartzerik gabe, lehen adierazi dugun moduan. Are gehiago, lan gehiena gizakiaren parte-hartzerik gabe egiten du eta egingo du. Desazkundean oinarritutako ekonomia baten ekarpen ekologiko nagusia ez da ekosistemak leheneratzea, ekosistemok suntsitzen ez dituen ekonomia egituratzea baizik. Pertsonen bizitzak mantendu behar ditugu, ez ekosistema-sarea bera, bere kabuz mantentzen baita.

3.2.4. Produkzioa eta erreprodukzioa unitate ekonomiko bakar batean integratzea

Lan batzuk eta besteak ez dira bereizi behar, elkarrekin lotuta baitaude. Are gehiago, erreprodukzio-lanari esker egin daiteke ekoizpen- edo produkzio-lan oro. Gainera, bidezkoena lan horiek generoen artean banatzea da, gaur egun duten banaketa desorekatua hausteko.

Halaber, lanen gaur egungo balorazio soziala goitik behera aldatu behar dugu. Gaur egun lan produktiboek eta, zehazki, kapitala areagotzeko aukera ematen duten aginte-zubietan daudenek dute balorazio sozial (eta ekonomiko) handiena. Gure interdependentzia eta ekodependentzia onartzen duen ikuspegi batetik, zainketako lanak hartu behar dira funtsezkotzat eta, beraz, horiek izango dira baliotsuenak (Pérez Orozco, 2019).

3.2.5. Lurralde arteko eta barruko aberastasunaren birbanaketa nabarmena, justizia globaleko irizpideei jarraikiz

Horretarako, askotariko neurriak hartu beharko dira, esaterako, ondare handietan desjabetzeak egitea, zerga-politika oso birbanatzaileak ezartzea, enplegua banatzea, eta abar. Nazioartean, adibidez, zor ekologiko edo kolonialak itzuli beharko liriateke. Hau da, funtsezkoa da pertsona guztien bizi-baldintzen bermea gure jardunaren erdigunean jartzea.

Biztanleria eragile aktiboa izan daiteke birbanaketa horretan, Estatuaren bitartekaritzarik gabe, esaterako, etxebizitzak eta lurak okupatuz, edo soldata-murrizketarik gabeko lanaldi-murrizketak behartuz. Nolanahi ere, Estatua ere prozesuaren parte izatera behartu beharko litzateke. Hala ere, desazkunderen aldeko proiektu politikoa gauzatuko balitz, Estatuaren birbanaketa-neurriak gero eta gutxiago beharko liriateke, biztanleriak bere bizitza mantentzeko gaur egun baino gaitasun askoz ere handiagoa lortuko lukeelako, bere biziraupena Estatutik eta merkatutik gero eta aldenduago egongo balitzateke. Neurriok bitartekotzat hartu behar dira, ez helburutzat.

Desazkunderaz hitz egitea da klase-harremanak, genero-harremanak eta harreman kolonialak aintzat hartzea. Hau da, eliteak dira desazkunderik handiena egin behar duten gizarte-taldeak, kontsumoak nahikotasun eta jasangarritasun irizpideetan oinarrituta parekatuko dituzten gizarteak sortzeko.

Oso garrantzitsua da zenbait kontu arretaz jorratzea: zer desparekotasun-harremanek zeharkatzen dituzten gure gizarteak eta bizitzak, eta nola gauzatuko ditugun birbanaketako prozesu horiek.

3.2.6. Pertsonen autonomia handitzea eta bizibideaz birjabetzea

Hemen, desazkunde komunalista defendatzen da (Almazán eta Barcena, 2023), arlo politikoan. Horretarako, gaur egungo egoera atzean utzi eta, epe luzera, *soldata*, *merkantilizazioa* eta *estatalizazioa*

*deseraikitze*ko prozesuak abiarazi beharko dira. Lehenengoarekin lotuta, Desazkundera proposamen antikapitalista bat da. Enpresa-eragileen gaur egungo hegemoniari tokia kendu eta jabetza- eta ekoizpen-modu kooperatibo eta autogestionatuak orokortzea du xede. Desazkundera oinarritutako ekonomia baten helburua ez da soilik soldatapeko lanaren baldintzak duin bihurtzea, edo ongizate-estatuak mantendu eta zabaltzea. Azaldutako aldaketak lortzeko, ez da nahikoa lanak berriz esleitzea; horrez gain, beharrezkoa izango da gizarte-harremanak antolatzeke funtsezko ardatz diren soldatapeko lanaren mekanismoa apurtzea. Horretarako, ezinbestekoa da ekoizpeneko bitartekoen gizarte-kontrola bultzatzea, *soldatak deseraikitze*ko, eta merkatutik gero eta jarduera gehiago kentzea, gure bizitzaren *merkantilizazioa* ere *deseraikitze*ko.

Horretarako, bizibidearen antolaketa berria ahalbidetuko duten ondasun komunak defendatu eta berreraiki behar dira. Ondasun komunok, gainera, aukera emango dute soldataren bitartekaritzaetik ihes egiteko, bai eta, pixkanaka-pixkanaka, Estatuaren zerbitzuekiko dugun mendekotasuna atzean uzteko ere. Egia da gaur egun zerbitzu horiek ezinbestekoak direla berdintasun-maila onargarriak mantentzeko, baina ez dugu ahaztu behar, batetik, gaur egungo ongizate-estatuak garai batean gizartearen ondare ziren bizibidea mantentzeko gaitasun autonomoak desjabetzearen ondorioz sortu zirela. Eta, bestetik, gaur egun diren modukoak izanik, ezin direla bereizi salatzen ari garen bizimodu inperialetatik. Horregatik, lurraldea ez ezik, zuzenbidea, zaintza eta hezkuntza ere berriro komunitateen esku egongo diren ondasun komun bihurtu behar ditugu, kapitalismoaren dinamika suntsitzaileretatik alendu eta erabaki demokratikoen mende egon daitezzen. Laburbilduz, gure bizibidea berreskuratu behar dugu (Berlan, 2021).

4. Desazkunderako estrategiak

Aurreko atalean ginetik azaldu dugu zer forma politiko hartuko lukeen, epe luzera, Desazkunderari buruzko gure proposamenak, baina garrantzitsua da hura gauzatzeko nolako ekintza behar den ere hausnartzea. Horregatik, *Decrecimiento. Del qué al cómo* liburuaren hirugarren ataleko emaitzarik garrantzitsuenak laburbilduz, Desazkunderan oinarritutako ekintza baterako funtsezkoak diren hiru estrategiak aurkeztuko ditugu orain.

4.1. Degradazio sozioekologikoaren aurkako borroka

Gure gizartea mendekotasun-harremanetan oinarrituta dagoenez, ezinbestekoa da egitura zapaltzaileen aurka borrokatzea. Gaur egun, kapitalismoa da, merkatuaren bidez, suntsipen sozioekologikoaren eragile nagusia. Alabaina, ezin da Estatutik erabat bereziti. Adibidez, enpresak finantzatzeko duen rolagatik edo azpiegitura handiak eraikitzen egiten duen lanagatik. Biei aurre egin behar diegu, kapitalaren erreprodukzio-prozesuak zaildu edo blokeatzeko eta lurraldea defendatzeko, politika ekosozialak eraikitzen dituzten ekintzen bidez. Adibidez:

- Ekoizpen kapitalista blokeatzea helburu duten borroka sindikalak: ekoizpen-baliabideak eskuratzea eta parametro ekosozialen bidez birmoldatzea, gainbalioa murriztea soldata-beherapenik gabe lanaldia murriztuz, etab.
- Estraktibismoaren aurkako eta, oro har, lurraldea defendatzeko borroka, zeinak ez baitute utziko kapitalaren zirkulazioko azpiegiturak hedatzen jarraitzerik eta naturaren merkantilizazioa (urak monopolizatzea, monolaborantzak, etab.) geldiaraziko baitute.
- Onartzen badugu kapitalismoak gure bizitzako alderdi gehiagotara zabaltzeko beharra duela, lurraldeari eta bizitzari dagokienez, erresistentzia egiteko modu bat da gure bizitzaren gaineko kontrolaz kolektiboki jabetzea. Hala, mundu-mailako merkatua murriztuko da eta gure bizitzak *desmerkantilizatuko* ditugu. Baina ez dugu uste prozesu horrek publikoa izan behar duenik (Estatuak kontrolatua), komuna baizik (gizarteek kontrolatua).

Merkatuaz eta Estatuaz gain, suntsipen sozioekologikoko eragile gero eta garrantzitsuagoak dira autoritarismo eta faxismo berriak. Horiek desaktibatuz, ezinbestekoa da premia ekosozialak asetzen dituzten esparru kulturalak sortzea. Halaber, gizarte-polarizazioan sakontzeari utzi behar zaio. Polarizazioaren logika indartsuenaren legearena da, ez emantzipazio feministarena. Indarkeria arinduko duen estrategia iraunkor bat behar dugu, betiere geure buruak erasoetatik babestuta. Azkenik, fronte antifaxista zabalak eraiki behar ditugu, homogeneotasuna xede ez dutenak, aniztasunarekiko bizikidetzat gatazkatsua baizik.

Erresistentziako borroka horietan, eklektizismo sozial handia jasotzen duten eta programa politiko eklektikoa eta, agian, kontraesankorra duten garai beroak egongo dira, Frantziako "txaleko horiekin" eta lehen sektoreko mugimenduekin gertatu den moduan. Kasu bakoitzean ikusi beharko da nola jardun egoera horietan, baina, oro har, garrantzitsuena da elkarrekin lan egitea eta, hortik abiatuta, borrokan ari diren kolektiboen barrutik hitz egitea.

Bestalde, egia da halako eraldaketetan gizarte-mugimenduei eta merkataritzakoak eta estatalak ez diren beste eragile batzuei dagokiela egitekoa, batik bat, baina aintzat hartu behar da Estatuak gizarte-bizitzaren arautzaile gisa indar handia duela. Horregatik, borrokarako halako mugimenduetan, funtsezko helburua izan behar du Estatu gaur egungo suntsiketako ibilbidearen kontrako norabideetara bultzatzeko gaitasuna lortzea. Adibidez, laneko babesa indartu eta zabaltzea, eta enpleguaren liberalizazioan edo langileen erabateko babesgabetasunean ez sakontzea.

4.2. Esparru kultural ekosozialak artikulatzea

Gizarte-aldaketak egiteko, kultura-esparru berriak behar dira. Baina baliteke hamarkadak igarotzea aldaketa horiek gertatzerako, eta ez daukagu hainbeste denbora. Nolanahi ere, gaur egungo krisiak eragiten dituen eta etorkizunean eragingo dituen *shock*-ak aprobetxa daitezke, giza plastikotasun handiaz baliatuz denbora laburrean jauzi kualitatibo handiak egiteko. Horri esker, gizarteak ulertuko du larrialdi anizkoitz batean gaudela, eta horren arabera joka dezakegu, guztion ongia lortzeko.

Hala ere, estrategia horrek zailtasun ugari ditu. Lehenengo zailtasuna da *shock* une horietan eskuratutako ikaskuntza kulturalak, sarritan, desagertu egiten direla aurreko inertzia sozialak berreskuratzen direnean. Irmotu egin behar dira. Beraz, gure lana ez da aurretiko sentsibilizazioa izango, ondorengoa baizik. Bigarren erronka da autoritarismo berriek ere *shock* horiek erabiltzen dituztela beren ordena sozialeko proiektua proiektatzeko eta inposatzeko. Ildo horretan egindako aurrerapen guztietan, beste eragile horiekin borrokatu beharko da.

Hirugarren zailtasuna da *shock* horiek bat-batekoak direnean katalizatzen dituztela elkarri laguntzeko prozesuak, hierarkiak lausotzen dituztelako. "Salbatuko gaituen" izakia desagertzen da eta elkar salbatzeko martxan jartzen gara. Alabaina, degradazio-prozesu motelagoetan, eta halakoak dira gizarte-ordena honen kolapsoan espero daitezkeenak (aurreikus daiteke hamarkadak iraungo duela kolapso horrek), nork bere burua salbatzeko aldarri ez-solidarioa indartzen da. Beraz, ezin dugu espero bat-batean jendea elkarri laguntzen hasiko denik, eliteek ahal duten guztia egingo baitute hierarkiak mantentzeko. Gehienez ere, *shock* horiek aprobetxa ditzakegu elkarrenganako laguntza indartzeko, eta pixkanakako suntsipen-prozesuetan mantentzen saia gaitzke. Eta, aldi berean, lan aktiboa egin dezakegu erakunde eta mugimendu sozialetan boterea sakabanatu eta hierarkiak desagerteko.

Shock egoera horietatik harago, gaur egungo sistema kulturala gehien bultzatzen dutenak ez dira kontakizun makroak (garrantzitsuak diren arren), gure eguneroko bizitzak baizik. Ez dugu pentsatzen dugun moduan jokatzeko; aldiz, jokatzeko dugun moduan pentsatzen dugu. Gure eguneroko bizitzan egiten dugunera egokitzen ditugu gure balioak, desadostasun kognitibo handirik ez izateko. Beraz, kultur arloko eztabaida, hein handi batean, jardunbide sozialen arloko eztabaida bat da, eta horregatik da garrantzitsua komunalizatzea. Jarraian hitz egingo dugu horri buruz.

4.3. Komunalizatzea

Ikusi dugun moduan, Desazkundean, batetik, merkatu-gizartetik "merkatuak dituen" gizartera igarotzen da, eta, bestetik, estatu-gizarte batetik gizarte autonomo batera. Merkatuak osagarri bihurtu behar du, eta ekonomiaren erdigunea izateari utzi. Gainera, Estatuak gizarte-antolaketaren erdigune izateari utzi behar dio, eta pixkanaka egitura komunitarioetan desegin. Helburua da autonomia sortzea, ekonomia eta, oro har, bizitza komunalizatuz. Komunitasun berri horiek askotarikoak izan daitezke: autokontsumorako baratze produktiboak, erabilera-eskubidean oinarritzen diren etxebizitzak, komunitate energetikoak, elkar zaintzeko eta laguntzeko sareak, etab. Gainera, komunitasun horietan, produkzioa eta erreprodukzioa erakunde berean bildu behar da, ikuspegi ekofeminista txertatuz.

Azken helburua da komunalizatze prozesuok asmo totalizatzailerako asetzailerako ekosozialak eraikitzea. Alabaina, hori oraindik ez da posible eta, batez ere, gure ustez komunalizazioaren prozesua ez da "dena ala ezer ez"; aldiz, mailaketa bat da, eta pixkanaka egin daiteke aurrera. Bide errealista bat izan daiteke bizitzako eremu sinpleak berreskuratzea eta gero konplexuagoak diren beste batzuetara igarotzea.

Bide zail hori egiten hasteko beste modu on bat da, estatuko zerbitzuei dagokienez, kudeaketa publiko-komunitarioko estrategiak aztertzea, eta pixkanaka txertatzen joatea biztanleria osoaren

bizitza mantentzeko ezinbestekoak diren eremu horien baliabide eta trebetasunak (Castro Coma eta Forné Aguirre, 2021).

Larrialdiko eta presazko testuinguru horretan, gainera, funtsezkoa da eskala-jauziak eta erreplikagarritasuna artikulatzea. Autoantolaketa kolektiboko prozesuak gai dira hori egiteko, baina azkarrago egin daiteke estatuko erakundeen eragin katalizatzailea izanez gero (finantzaketa, araudia, politikak). Nolanahi ere, Estatuak ez litzateke inoiz eragilea izango. Kasurik onenean, aldaketak katalizatzaile behartu daiteke, baina ez lituzke bultzatuko. Lankidetzaren publiko-komunitarioa erabilgarria izan daiteke gaur egun Estatuak pilatzen dituen zerbitzuak berriz ere gizartera eramateko. Alabaina, une jakin batean, Estatuarekiko gatazka saihetsezina izango da. Litekeena da Estatuak eragile kapitalistak errepresioaren bidez defendatzea, edo haien pribilegioak babesten saiatzea.

Aipatutako hiru estrategietatik, komunalizazioa da lehentasunekoak. Lehenik, degradazioarekiko erresistentziak mantentzeko balioko lukeelako: benetako ordezkari aukerarik izan ezean, ezein borroka prozesuk ez du iraungo. Bigarrenik, jardunaren bidez gauzatuko lukeelako esparru kultural ekosozialen eraldaketa. Hirugarrenik, funtzionatuko duen ordezkari aukerarik gabe ezinezkoa delako mundu ekosozialak sortzea. Laugarrenik, gure premien asetzailerresilienteak eraikitzean segurtasuna sortzen dugulako eta autoritarismo berrien beldurraren estrategia blokeatzen dugulako. Eta bosgarrenik, zailena delako eta, beraz, ahaleginik handiena horretan egin behar delako.

5. Ondorioa: Desazkundeari eta kolonialismoari buruzko hausnarketa bat

Desazkundera ez da saihetsezina. Eta ez da mugatzen gure energiaren edo materialen kontsumoa murriztera. Desazkundera proposamen politikoa da, eta gure gizartearen eraldaketa desiragarri bat lortu nahi du, kolapso ekosozialak ezarritako muga berriekin bateragarria izango dena. Gainera, eraldaketak integrala izan behar du, aurrez aurre ditugun krisi ugariak (energetikoa, soziala, klimatikoa, biodibertsitatearena, etab.) ez baitute konponbide isolaturik edo kapitalismo industrialarekin bateragarria denik.

Mugimendu ekologistaren barruan dauden modernizazio berdeko proposamenak ez bezala, Desazkunderaren oinarria da "trantsizio ekologikoa" ezin dela "trantsizio energetikora" murriztu. Halaber, ez da onartzen energia berriztagarria ekoizteko eremuak ezartzean behar besteko deskarbonizazioa lortuko denik, eta krisi klimatikoa konpondu daitekeenik energiaren, materialaren eta ekosistemaren krisia kontuan hartu gabe.

Ezin da lehendabizi "erraza" dena egin (trantsizio energetikoa), eta gero "zaila" dena (Desazkundera). Dagoeneko ez dugu astirik eraldaketa bi fase horietan egiteko. Kasurik onenean, aukera bakar bat dugu eta, beraz, ezin ditugu denbora, materialak eta energia xahutu hiru edo lau hamarkadatan gutxienez partzialki zaharkituta geratuko diren teknologietan, eta halaxe dira teknologia berriztagarri hiperindustrialak. Klimaren eta ekosistemaren degradazio-prozesuak bizkortuko dituzten atalaseak ez gäinditzeko aukeraren bat izan nahi badugu, berehala jardun behar dugu, oso gogor eta azkar. Benetan ulertzen badugu larrialdi batean gaudela (klimatikoa, ekologikoa, soziala), pixkanakako aldaketa txikiak ez dute zentzurik, garrantzirik gabekoak dira eta. Larrialdi batean, errotiko aldaketak bultzatu behar dira.

Horregatik, hemen egin dugun moduan, arazoen iturburura doazen politiketan jarri behar dugu arreta. Ez nahitaez arrakasta izango dutelako (seguruenik ez baitute izango epe laburrean), mezu zuzena bidaltzen dutelako eta koherentzia dutelako baizik. Ikuspegi erradikala ez da soilik diskurtso erradikal bat, eta hori ez da garrantzitsuena ere; aitzitik, helburua da aldaketa-prozesuek, zeinak nahitaez prozesualak, kontraesankorrak eta aurreikus ezinekoak baitira, zentzu antikapitalista ez galtzea eta beren ahaleginak funtsezko eraldaketetan ardatzea.

Gainera, argi eta garbi esan behar da ez dela onargarria lurralde pribilegiatuetan (gure lurraldeetan) trantsizio arin bat egitea, sakrifizio estraktibista egingo duten lurralde eta populazioak sortzearen kontura. Eta horixe gertatuko litzateke, esaterako, trantsizio berde eta digitalerako funtsezko materialen (litioa, baltso-zura eta metal arraroak, besteak beste) geopolitika berria. Egiaz, halako proposamenek joera neoestraktibistak erreproduzitzen dituzte, eta kolonialismoan sakontzen dute, kasu honetan, kolonialismo energetiko eta ekologikoan (Sánchez Contreras eta Matarán Ruiz, 2023).

Ikuspegi horretatik, esan daiteke Iparralde Globalean Desazkundera dela dinamika ikaragarri hori hausteko giltza duen proposamen bakarretako bat. Hain zuzen ere, dinamika horretan, azken bost mendeetan, munduko lurralde gehienak eta horietako biztanleak menderatu dira, elite pribilegiatu txiki baten bizimodu inperiala mantentzeko. Baina, zer zentzutuan da giltza?

Jakina, kontua ez da Desazkundera lurralde guztietan aplikatu beharreko eredu bakar eta unibertsal bihurtzea. Izugarriko hanka-sartzea litzateke iraganean ebanjelizazioaren, zibilizazioaren, aurrerapenaren eta garapenaren bereizgarri izandako eredu berbera errepikatzea. Heldu da garaia ulertzeko lurraldeek gaitasuna dutela beren patuari buruz erabakitzeke eta gehien komeni zaizkien erabakiak ebaluatzeke. Horregatik, hasieran esan dudan moduan, Desazkundera proposamen bat besterik ez da, munduko toki guztietan Pluribertso bat osatzen ari diren proposamen ugarien artean (Kothari et al. 2019). Hau da, kapitalismo industrialaren eta estraktibismoaren labirinto suntsitzaitetik irteteko bideak esploratzen ari diren proposamen- eta jardunbide-konstelazio oso bat dago.

Hala ere, zentzu batean, Desazkondeak rol pribilegiatu eta erabakigarria du Pluribertso horretan. Hain zuzen ere, proposamen horrek Iparralde Globalean arrakasta izate hutsarekin, Hegoalde Globalean sortuko liratekeen kondizio materialei esker, aukera izango lukete estraktibismoa *de facto* bertan behera uztea erabakitzeko. Izan ere, gaur egun, munduko lurralde gehienak estu hartuta daude, eta beren lurraldeak suntsitzen jarraitu behar dute, munduko kapitalismo industrialak esleitzen dien mendeko posizioari lotuta, edo estatu-kolpeak eta mota guztietako kanpoko esku-hartzeak jasaten dituzte. Ez da kasualitatea urtero Asian, Afrikan eta Latinoamerikan naturaren ehunka defendatzaile hiltzea, bitzta defendatzen saiatzeagatik.

Baina suntsipen, indarkeria eta nekropolitika hori gure bizimodu inperialak mantendu eta erreproduzitzeko behar den baldintza besterik ez da. Hau da, Desazkondearen edo beste proposamen erabat antikolonial baten bidez atzean utzi artean, indarkeriak estrukturalki ezarrita jarraituko du planetako toki horietan guztietan. Baita ustezko trantsizio berde eta digital horien ondoren izango genituzkeen etorkizun zoriontsuetan ere. Horregatik, amaitzeko, esan dezakegu Iparraldean Desazkunderik egon ezean, Hegoaldeak ezin izango duela bere patua askatasunez erabaki.

6. Bibliografia

- ALMAZÁN, Adrián eta Iñaki BARCENA (koord.) (2023): *Nuevos Comunalismos*, Ned Ediciones.
- ALMAZÁN, Adrián eta Luis GONZÁLEZ REYES (2023): *Una propuesta de hoja de ruta para la transición ecosocial de la economía de Hego Euskal Herria*. MRA Fundazioa (2024ko urriaren 30ean kontsultatua), hemen dago eskuragarri:
<https://mrafundazioa.eus/es/articulos/una-propuesta-de-hoja-de-ruta-para-la-transicion-ecosocial-de-la-economia-de-hego-euskal-herria>
- ALMAZÁN, Adrián eta Jorge RIECHMANN (2023): "Desafíos políticos de las transiciones energéticas". *Arbor*, 199(807).
- BERLAN, Aurélien (2021): *Terre et liberté: La quête d'autonomie contre le fantasme de délivrance*, La Lenteur.
- BONNEUIL, Christophe eta Jean-Baptiste FRESSOZ (2016): *L' événement anthropocène: La Terre, l'histoire et nous*, Éditions du Seuil.
- BRAND, Ulrich eta Markus WISSEN (2021): *Modo de vida imperial. Vida cotidiana y crisis ecológica del capitalismo*, Tinta Limón.
- CASTORIADIS, Cornelius (1989): *La Institución imaginaria de la sociedad*, Tusquets.
- CASTRO-COMA, Mauro eta Laia FORNÉ AGUIRRE (2021): *Patrimoni Ciutadà. Un marc per a la col·laboració públic-comunitària*. IDRA, Institut de Recerca Urbana de Barcelona (2024ko urriaren 30ean kontsultatua), hemen dago eskuragarri:
<https://idrabcn.com/publicacio/patrimoni-ciutada-un-marc-per-a-la-collaboracio-publico-comunitaria/>
- DE CASTRO CARRANZA, Carlos (2020): *El Origen de Gaia: Una teoría holista de la evolución*, Libros en Acción.
- DÍAZ, Sandra, Josef SETTELE, Eduardo S. BRONDIZIO, Hien T. NGO, John AGARD, Almut ARNETH, Patricia BALVANERA, Kate A. BRAUMAN, Stuart H. M. BUTCHART, Kai M. A. CHAN, Lucas A. GARIBALDI, Kasuhito ICHII, Juanguo LIU, Keenetha M. SUBRAMANIAN, Guy F. MIDGLEY, Patricia MILOSLAVICH,... eta Cynthia ZAYAS (2019): "Pervasive human-driven decline of life on Earth points to the need for transformative change", *Science*, 366(6471).
- GONZÁLEZ REYES, Luis eta Adrián ALMAZÁN (2023): *Decrecimiento. Del qué al cómo*. Icaria.
- GONZÁLEZ REYES, Luis, Erika GONZÁLEZ BRIZ eta Adrián ALMAZÁN (2024): *Transición ecosocial en Cataluña. Una propuesta decrecentista*. Grup transició eco-social - CGT Catalunya.
- HANSEN, James, Makiko SATO, Paul HEARTRY, Retro RUEDY, Maxwell KELLEY, Valerie MASSON-DELMOTTE, Gary RUSSELL, George TSELIODIS, Junji CAO, Eric RIGNOT, Isabella VELICOGNA, Blair TORMEY, Bailey DONOVAN, Evgeniya KANDIANO, Karina VON SHUCKMANN, Pushker KHARECHA, Allegra N. LEGRANDE, Michael BAUER eta Knok-Wai LO (2016): "Ice melt, sea level rise and superstorms: Evidence from paleoclimate data, climate modeling, and modern observations that 2 °C global warming could be dangerous", *Atmospheric Chemistry and Physics*, 16(6), 3761-3812.
- HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Juan eta Pedro RAMIRO (2024): *La Unión Europea y el capitalismo verde militar: Materias primas y acuerdos comerciales para el extractivismo neocolonial*. Ecologistas en Acción eta Observatorio de Multinationales en América Latina (OMAL) - Paz con Dignidad (2024ko urriaren 30ean kontsultatua), hemen dago eskuragarri:
<https://omal.info/spip.php?article10162>
- KOTHARI, Ashish, Ariel SALLEH, Arturo ESCOBAR, Federico DEMARIA eta Alberto ACOSTA (Argtz.) (2019): *Pluriverso: Un diccionario del posdesarrollo*. Icaria.

- MIES, Maria eta Veronika BENNHOLDT-THOMSEN (1999): *The subsistence perspective: Beyond the globalised economy*, Zed Books eta Spinifex Press.
- NEWBOLD, Tim, Lawrence N. HUDSON, Andrew. P. ARNELL, Sara CONTU, Adriana DE PALMA, Simon FERRIER, Samantha L. L. HILL, Andrew. J. HOSKINS, Igor LYSENKO, Helen R. P. PHILLIPS, Victoria J. BURTON, Charlotte W. T. CHNG., Susan EMERSON, Di GAO, Gwilym PASK-HALE, Jon HUTTON, Martin JUNG, Katia SANCHEZ-ORTIZ, Benno I. SIMMONS,... eta Andy PURVIS (2016): "Has land use pushed terrestrial biodiversity beyond the planetary boundary? A global assessment", *Science*, 353(6296), 288-291.
- PÉREZ-OROZCO, Amaia (2019): *Subversión feminista de la economía: Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Traficantes de Sueños.
- RICHARDSON, Katherine, Will STEFFEN, Wolfgang LUCHT, Jorgen BENDTSEN, Sarah E. CORNELL, Jonathan F. DONGES, Markus DRÜKE, Ingo FETZER, Govindasamy BALA, Werner VON BLOH, Georg FEULNER, Stephanie FIEDLER, Dieter GERTEN, Tom GLEESON, Matthias HOFMANN, Willem HUISKAMP, Matti KUMMU, Chinchu MOHAN, David NOGUÉS-BRAVO,... eta Johan ROCKSTRÖM (2023): "Earth beyond six of nine planetary boundaries", *Science Advances*, 9(37).
- SÁNCHEZ-CONTRERAS, Josefa eta Alberto MATARÁN RUÍZ (Argtz.) (2023): *Colonialismo energético. Territorios de sacrificio para la transición energética corporativa en España, México, Noruega y el Sáhara Occidental*, Icaria.
- SÁNCHEZ-BAYO, Francisco eta Kris A. G. WYCKHUYS (2019): "Worldwide decline of the entomofauna: A review of its drivers", *Biological Conservation*, 232, 8-27.
- SEMPERE, Joaquim (2018): *Las cenizas de Prometeo: Transición energética y socialismo, Pasado y presente*.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.

16. Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak. Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. Txina: Garapen eredia birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria. Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
18. Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOEA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. Herri Administrazioaren eraketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak. Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa1, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Análisi Ekonomikoko Saila, EHU.
21. Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatibean bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. Errenta eta aberastasun banaketaren desperekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurratzaga Aurre, Elena Martinez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOEA Institutua UPV/EHU.
26. Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomenoak. Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKIko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala. Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itzaropenaren alde borrokatze gakoak. Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo. Hegoaren Hezkuntza Taldea.
29. Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat. Laura Feal Sánchez.
30. Munduko ekonomiaren erronka demografikoak. Ángeles Sánchez Díez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

31. **Zaintza eta zahartzarora: XXI. mendeko erronkak.** Matxalen Legarreta-Iza. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Uzuri Castelo Moñux. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Alaitz Uriarte Goikoetxea. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Maider Barañano Uribarri. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Marina Sagastizabal Emilio-Yus. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
32. **Ekofeminismoak. Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea.** Amaia Pérez Orozco. Colectiva XXK. Feminismoak, pentsamendua eta ekintza.
33. **Sexu eta genero aniztasuna aztertzeko gakoak.** Aimar Rubio Llona. Hegoako Kolaboratzailea, UPV/EHU.
34. **Zientzia eta feminismoak: zientziari bizitzaren iraunkortasunetik begiratzen.** Vane Calero Blanco. Sorkin, alboratorio de saberes / jakintzen iraultegia.
35. **Garapen jasangarriaren oinarri esentzialistak. 2030 Agendaren inguruko gogoeta filosofikoa.** Juan Telleria. Filosofia Saila, PRAXIS ikerketa taldea eta Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
36. **Inurriak baikinan. Kolapsoa ez da saihestezina gizarte konplexuetan.** Gorka Bueno. Ekopol ikerketa-taldea. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
37. **Gizarte desberdintasunak osasunean: zer eragin dute euskadiko herritarrengan?** Amaia Bacigalupe. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Erika Valero. Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Erizaintza 2 Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Yolanda González-Rábago. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Unai Martín. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK.
38. **Zer da Desazkundera?** Adrián Almazán. THECO ikerketa-taldea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea.

